

Europako Parlamentua presoez aritzearen kontra agertu da Alain Lamassoure

Espainiaren eta Frantziaren afera soilik dela adierazi du UDFko hautagaiak

Hur Gorostiaga / Baiona

Presoek euren familia eta bizilekutik hurbilene-ko presondegietan egote-ko eskubideari buruz «Europar Parlamentuak zer esanik ez» duela adierazi zuen atzo Alain Lamassourek. «Espainiako eta Frantziako gobernuen afera soilik» dela esan zuen UDFko zerrendaren laugarren tokian aurkeztu den euskal hauteskiak.

EUROPAKO Parlamentuak behin baino gehiagotan agertu du presoek beren familia eta bizilekutik hurbilen dauden presondegietan egoteko eskubidea dutela. Azken aldiz, Pierre Pradier Miarritzeko europarlamentarioaren ekimenez onartu zuen, joan den abenduan, Askatasun Publikoen batzordearen bitartez. Datu horiek agerturik, Baionan larunbatean izandako manifestaldi jendetsua oroitarazirik, eta UDFko zerrendaren laugarren tokian egonik europar parlamentario izanen delako segurtasunaz, halako gai baten aurrean bere jarrera zein izanen lukeen galdegina atzo EGUNKARIAk Alain Lamassoureri. Haren erantzuna, hauxe: «Halako gaie- tan Europako Parlamentuak ez luke izan behar zer esanik». Lamassouren erranetan, «ez da Europako Parla-



Gilles de Robien eta Alain Lamassoure, atzo Baionan.

mentuaren eskumena, Espainiako Gobernuarena baizik, eta Frantziarena ere bai zenbait presoren kasuan». «Frantziako eta Espainiako gobernuen afera da soilik», erran zuen Angeluko auzapez hautatu berri eta Diritutako buruak.

Atzoko prentsaurrekoan bere kandidatura sustengatzen agertu zen Didier Bortra Miarritzeko auzapez senadoreak presoek hurbilpena eskatu zuela ohartarazirik, eta berak eskaera horrekin bat egiten duen ala ez galdegini, aldiz, «ez dut

deus komentatzekorik» erantzun zion EGUNKARIAri Alain Lamassourek.

Hauteskunde kanpainaren baitan, Gilles de Robien UDFko bozeramailearekin batera, Pirinio Atlantikoetako hainbat enpresa bisitatzen izan zen Lamassoure. Gobernu sozialistak Europako Batasunerako diru zama murrizteko hartu duen erabakia dela eta, azken urteetan Ipar Euskal Herriak Europatik jaso izan duen diru kopururik berriz jasotzerik ez duela izanen salatu zuen Europako Gaietako

ministro ohiak. Gisa berean, diru bakarra eratu ondoan, kanpo aferetan eta defentsan Europan politika komunak garatzearen alde agertu zen Lamassoure. Gure eskualdea Europaren garapena hobekien baliatzen ahalko duen eskualdeetarik izanen dela azpimarratu zuen.

Angeluko auzapeza da herenegun geroztik Alain Lamassoure. Michel Bonneten heriotzaren ondoren, auzapezaren kargua bere esku utzi zuten ostegun arratsean hautetsi angeluarrek.

Presoen Euskal Herriratzea eskatu du Isler Beguin Berdeen hautagaiak Donibanen

H.G. / Donibane-Lohizune

MARIE-ANNE Isler-Beguin Frantziako Berdeen Europako Hauteskundeetarako zerrendako bigarren hautagaiak euskal presoak Euskal Herriratzea «bake iraunkor bat lortzeko Frantziako Gobernuak egin lezakeen keinu» gisa galdegina atzo Donibane-Lohizunen, lehenago hauteskundeotan Berdeen zerrendaburu Daniel Cohn-Benditek eskatu zuen gisara.

1989. urtetik 1994. urtera bitartean Europako Parlamentuko lehendakariorde izandakoak, Bruselan OIP Nazioarteko Presondegietako Behatokiaren alde egindako lana azpimarratu zuen atzo, eta «berriz ere giza eskubideen errespetuaren alde Europan lan egiteko prest» agertu zen Marie Anne Isler.

Euskal Departamenduari buruz, aldiz, departamenduak «oso gogoko ez» dituela adierazi zuen Islerrek, eta Euskal Herria osotasunean hartuko lukeen euroeskualdea sortzearen alde agertu zen, bitartean *pays* egitura indartzeko xedearekin. «Hala ere Ipar Euskal Herriko gehiengoak euskal departamendua nahi badu eta galdegiten badu, eskaera hori arrunt kontuan hartu beharko litzateke», ohartarazi zuen Berdeen zerrendako bigarren hautagaiak.

Azkenik, Herri eta Populuak Alkarrekin (RPS) federazioarekin izandako harremanak aipatu zituen Islerrek. Frantziako gutiengoetako alderdiez osaturik eta besteak beste Eusko Alkartasunarekin, «RPS federazioak ez du zerrendarik aurkeztuko hauteskundeotan, baina gure aldeko boza galdeginen dute» adierazi zuen. Nahiz eta RPS federazioko kiderik ez izan Berdeen zerrendan, «kanpainan populuen aldeko mezua zabalduko» dutela adierazi zuten. Aurkeztu diren zerrendetan euskal abertzaleek aukera hoberik ez dutela erraz aurkituko adierazi zuen Jean Lissarrek.

Alli: «Ez dugu onartuko Nafarroaren nortasuna murriztea»

Eduarne Elizondo / Iruñea
JUAN CRUZ ALLIK CDNk foru hauteskundeetarako prestatu egitaraua aurkeztu zuen, atzo, Iruñean. Kanpainarako *Etorkizuneko Nafarroa prestatzen* eta *Bizikidetzaz* leloak aukeratu ditu CDNk; gobernu ekintzarako

egitarauari dagokionez, hiru ardatz nagusi dituela azpimarratu zuen Allik: Nafarroa eta bere nortasuna, batetik; bestetik, langabeziaren aurka borrokatzeko egindako ekintza politikoa; eta, hirugarrenik, ongizatearen gizar-tearen lorpenen defentsa.

Eremu instituzionalean, autogobernua garatzearen aldeko apustua egin zuen CDNko buruak.

Nafarroaren nortasunaren alorrean, «Nafarroa erkidego bereizitza» jotzen du CDNk, eta errealtate hori da, Alliren hitzetan, bere alderdiaren abiapuntua: «Nafarroa eta nafarrak dira gure herrialdearen etorkizuneko protagonista bakarrak», azpimarratu zuen.

«Nafarroa da bere patuaren jabe bakarra, eta, beraz, Nafarroak bakarrik erabaki dezake bere etorkizuna. Hori dela eta, CDNk ez du Nafar-

roaren nortasuna murriztu dezakeen proiekturik defendatuko», nabarmendu zuen.

Bestalde, PSNk UPNri egindako eskakizunaz aritu zen Alli; PSN Gobernua osatzeko ez dela EHren aldeko botoan edota abstentzioan oinarrituko erran du, eta gauza bera egiteko eskatu dio UPNri. Allik eskakizun hori ez duela ulertzen erran zuen, «esperientziak erakutsi digulako boto gehien lortzen duen zerrendak bi hilabetez edozein alternatiba oztopatu ondoren, sistema automatikoaren bidez Gobernuak lortzen duela».